

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Dantzatzen
duen herria...**

Kaixo herrikide!!!

Pandemiak herriko dinamika eten bazuen ere, horri buelta eman nahian dabilta asko. Lehengo moduan izango ez bada ere, herria elkartzeko eta indartzeko lanean dabilta. Horren adierazle dira Kultur Mahaia sortu izana eta herriko

festak antolatzeko asmoa. Horien berri izango duzue ale honetan. Eta noski, beste hainbat kontu ere bildu ditugu: Kutxa Bira Igeldon, TETaren inguruko Herri Batzarra, Don Jose medikuaren historia eta koronabirusaren eragina ekonomian.



Maiatzeko lehen bi larunbatetan lore eta landare azoka izan zen kooperatibako aparkalekuan.

Lore eta landare azoka kooperatiban

IKO proiektua denda bat baino gehiago dela argi izan dute kooperatibako kideek eta aspalditik gauza ezberdin gehiago egiteko asmoa izan arren, osasun egoera kontuan hartuz orain artean ezin izan dute ezer antolatu. Udaberri Jaiari keinu bat egin eta bazkideei eta herritarrei zerbait berezia eskaini nahian lore eta landare azoka antolatzea erabaki zuten maiatzeko lehen bi larunbatetan (maiatzak 8 eta 15). Guztira bi postu izan ziren, jende pilaketa handirik ez izateko. Giro ederra izan zen bi larunbat goizetan eta harrera ona izan zuen azokak, goizean zehar jende asko inguratu baitzen. Landare eskaintzari dagokionean, dendako eskaintza anitzaren barruan sartzeko asmoa dutela adierazi digute, baina espazio aldetik behar han-

dia eskatzen duenez, aztertzen ari dira nola antolatu.

Herritarren aldetik ere jarrera ona izan zela azpimarratu nahi izan dute antolatzailuek, parkina okupatua izatean herriko aparkalekuan aparkatu eta oinez inguratu izanagatik. Igeldotarrez aparte Donostia ingurutik ere hurbildu zen jendea eta kooperatibako proiektua zabaltzen jarraitzeko baliagarria izan zela baloratu dute.

Bestalde, dendako bazkide zein kontsumitzaileei iradokizunen kutxa dendako ordainketa kaxaren ondoan dagoela gogorarazi nahi izan diete, jendeak zerbait faltan botatzen badu bertan adierazi dezan. Modu horren bidez, kontsumitzaileen nahiak asetzeko ahaleginak egingo dituztela azaldu dute.

Nicol's eremua errespetatzeko eskaera

Azken denboraldian Nicol's hotela itxita dago. Eta pandemiak sortutako egoera honetan, asko eta asko izan dira bertako eremuan sartu eta nahieran erabili dutenak (Igeldokoak eta kanpokoak). Batez ere, aparkalekua. Hotelaren jabeak Herri Kontseiluari jakinarazi dio eremu osoa pribatua dela, baita bidea ere, eta herritarrei eskatzen die eremua errespetatzeko eta ez erabiltzeko. Bidea irekita daukate zaborra biltzeko kamioiarantz.

Eskolako patioa berritzea helburu

Apirilaren 22an Guraso Elkarteko bilera ospatu zen. Beste gai batzuen artean, datorren ikasturterako patioa altxariak berritzeko behararen inguruan hitz egin zen. Hori dela eta, gurasoen artean proiektu bat prestatuko dute auzolanean eskolako gune desberdinak berritzeko.

Kurtso bukaerako emanaldia prestatzen

Ikasturte honetako ikastaroak ere bukatzeaz dira eta ohi bezala, kurtso bukaerako emanaldia eskainiko dute ikasleek. Prestaketa lanetan ari dira orain. Ekainaren 18an (ostirala) izango da frontoian, arratsaldeko 17:00etan hasita. Ikasturtean zehar ikasi dutena ikusteko aukera izango da. Honako ikastaroak erakutsiko dituzte: musika tailerra, panderoa, trikixia, pianoa, gitarra eta balleta.

Hasi dira festak antolatzen

Jai edo ospakizunek garrantzia handia dute herrietako bizitza sozilean. Herria kohesionatu eta balio batzuen baitan ongi pasatzeko funtsezko egunak izan ohi dira. Lehengo urtean "konfinamendu" luze baten ostean etorri ziren herriko jaiak eta ia ezer ere egiterik ez zen izan. Aurten, Ttonttorro jai batzordeko kideek ez dute egoera errepikatzerik nahi eta ekintza ezberdinak antolatze-ko asmoa dute. Jada bilera batzuk egin dituzte eta aurrera begira ere gehiago burutuko dituzte. Dena dela, ekintzak antolatzea ez dela erraza izango azaldu dute, Udalak oso neurri zorrotzak jarri baititu eta diru laguntza dezente murriztu baitu. Ttonttorro jai batzordea beste jai batzorde batzuekin batera gaia lantzen ari da eta Udalak jarrera aldatzen ez badu mobilizazioak deitze-ko aukera aztertzen ari dira.

Egoera ikusirik, jaiak burutu nahi baditugu herritar guztion konpromisoa beharko dugula azpimarratu nahi dute jai batzordeko kideek. Horrela, bilere-tan edota ekintza zehatzen antolake-tan parte-hartzeko deia luzatu dute. Beraiekin harremanetan jartzeko: ttonttorro@gmail.com



Martxoaren 8an Donostiako manifestaziora elkarrekin joan ziren hainbat emakume.

Igeldoko emakume taldea osatu da

Martxoaren 8aren aitzakian azken urteetan herriko hainbat emakume elkartzen direla eta, urtean zehar ere feminismoaren inguruan hausnartze-ko taldetxo bat osatu dute. Talde irekia dela adierazi digute eta beraien asmoa herriko adin ezberdinetako emakume-en elkargunea izatea da. Urtean zehar deialdi ezberdi-

nak antolatzeko asmoa dute, emakume izatetik dituzten kezka, ideia edo hausnarketak konpartitzeko.

Bestalde, Martxoaren 8aren inguruan herrian gaia bistartzeko, zenbait pankarta eta kartel ezarri zituzten bezperan eta egunean bertan Donostiako manifestaziora joan ziren elkarrekin.

Sutea Mikel Arrillagaren ikuiluan

Apirilaren 15an izan zen, arratsaldean eta kixkalita gelditu zen ikuilu osoa. Mikelengana hurbildu da Orri Informatiboa berarekin hitz egiteko eta erabat jota gelditu zirela adierazi du. Barruan, idi-parea, oilo batzuk eta txakurrak zituzten eta ezin izan zuten ezer egin, nola erretzen zen ikusteaz aparte: «Eta horrek tristura handia sortzen dizu, inpotentzia, zerbait egin nahi eta ezin». Suhiltzaileak arratsalde osoan zehar aritu ziren sua itzali nahian, udaltzainak eta ertzainak ere hurbildu ziren. Orain ikertzen ari direla azaldu du, suaren zergatia jakiteko. Bestalde, Herri Kontseilua zein



Apirilaren 15ean izan zen sutea. Ertzaintza ikertzen ari da sutearen arrazoia.

herritar anonimo asko ere laguntza eskaintzera inguratu zaizkiela azaldu du eta benetan eskertzekoa dela jaso duten elkartasuna: «askok etxeko atea jo, ikuilura bertara azaldu edo harategira ere etorri izan

zaizkit laguntzeko prest, eta eskertzekoa da». Orain berriro ere, negu alderako aterpea prestatzeko asmotan dabilela adierazi du eta bitartean ganadua larrean izango duela, urte-sasoari esker.



Maiatzaren 28an iritsiko da Kutxa Bira Igeldora

Azken hilabete eta asteetan herriz-herri biraka dabil mezuz beteriko kutxa bat. Baina zer da Kutxa Bira eta zein helburu ditu? Gehiago jakiteko antolatzaileetako bati galdera batzuk egin dizkiogu.

Zer da Kutxa Bira?

Euskal Herria eta Diaspora zeharkatzen ari den egurrezko kutxa bat da, bertan Euskaldunok gure ametsak sartzen ditugu.

Zergatik sortu duzue horrelako dinamika bat eta zein dira helburuak?

Gure herriaren nortasunaren adierazle diren hainbat ekimen ezin izan dira egin: Korrika, Herri Urrats, Nafarroaren eguna, Durangoko azoka... beraz behar bat badagoela uste dugu eta behar hori asetzeko sortu dugu dinamika. Herri ezberdinak saretu eta 7 probintziek herri bat osatzen dugunaren kontzientzia ere zabaldu nahi dugu.

Zer egin duzue orain arte eta nola baloratzen duzue?

Patagoniatik abiatu zen Kutxa Bira eta Euskal Herriko hainbat lurralde zeharkatu ditu. Orain arte egindako ibilbidea zaila bezain aberatsa izan

Harrera egiteko, egitarau oparoa

Kutxa Bira Maiatzak 28an iritsiko da Igeldora eta harrera egiteko egitarau oparo bat prestatu dute. 18:30etatik aurrera pilota emanaldia, kantua, dantza... egongo da. «Beraz, parte-hartzera gonbidatzen zaituztegu!» egin dute dei Igeldoko antolatzaileek.

da, herritarrek egoera zailari irudimen eta alaitasunez erantzun baitiote. Bizi dugun osasun krisiak galera emozionala eragin dio gure herriari, Kutxa Bira pasa den herrietako irudiek erakusten dute behar bat badela, herri honek bere norta-

suna adierazi behar duela. Herriz-herri mezu eta amets ezberdinak sartzen ari dira kutxan, askok euskararekin dute lotura. Baina badira bestelakoak ere, esaterako hainbat lagunek Aroztegiko makro-proiekturik gabeko Lekaroz amesten zuten, beraien ametsa kutxan sartu zuten eta aste bat pasata hondeamakinak joan ziren herritik. Ametsak lorgarriak diren erakusle. Nahia eta borondatea duen herriak ametsak gauzatzen ahal dituenaren erakusle. Herri bakoitzak bere kolorea ematen dio kutxari eta munduari erakutsi nahi diogu, ametsak betetzeko izaten direla.

Herriz-herriko dinamika amaitzean beste zerbait egiteko asmoa duzue?

Egoerak uzten badu Iparra-Hegoak bere ohiko formatura itzuli nahi luke. Euskara eta lurraldetasuna ardatz, harremanak sakondu nahi ditugu.

Ikusmin handia sortu zuen slackline saioak

Tximistarriko kala itsas gainetik alderik alde zeharkatuz, slackline bat jarri zuten Slak Herria elkarte-ko kideek martxoan. Kirol hone-
tan, alde batetik bestera zehar-
katzea da kontua soka baten gai-
netik joanez, oreka mantenduz.
Tximistarriko honek, kilometro
erdiko luzera izan zuen eta itsaso-
tik 100 metrora jarri zuten.
Martxoaren 29tik apirilaren 1era
bitarte, egunero aritu ziren elkar-
teko hainbat kide saioak egiten
eta ikusmin handia sortu zuen
herritarren artean.



Kilometro erdiko tartean ibili ziren itsasotik 100 metrotara, soka baten gainean.

Slackline Tximistarrin: mehatxaturiko hegaztiei jake

*Duela egun eskas batzuk prentsa-
ren bidez (El Diario Vasco) izan
genuen jarduera horren berri.
Kontserbazio munduan gabiltzan
elkarte, gizarte eragile, ornitologo
eta hegaztizaleok berehala izutu
eta asaldatu ginen zonalde hartan
mehatxaturiko hegazti ezberdinen
habiak daudelako eta bete-betean
ugal garaian egin behar zelako.
Gutxien espero genuena zen espe-
zie horien kontserbazioa bermatu
beharko lukeen Erakundeak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak alegia,
baimendutakoa zela jakitea.*

*Biodibertsitatearen kontserba-
zioa bermatu nahi bada, denak ez
du balio eta ezin da edozein jardue-
ra, puntuala bada ere, edozein toki-
tan eta edozein garaian onartu.
Babesturiko Naturguneetatik kanpo
egitea lehenetsi beharko litzateke,
irudi horiek kontserbazioari begira
sortuak direlako. Baina, edozein
kasutan, badaude gainditu beharko
ez liratekeen marra gorriak, hala
nola intereseko habitatak kaltetzen
edo kaltetu dezaketenean eta
mehatxaturiko espezieengan eragin
negatiboa edo inpaktua sortu deza-
ketenean. Ugal garaia da edozein
espeziearentzat momenturik kriti-*

*koena eta mehatxaturiko espezieen
habitata (negua pasatzekoa, atse-
den hartzekoa, elikatzekoa...) Legeak
babesten badu, Legeak
ugal lekuak zorrozki babesten ditu.
Hortaz ez da inolaz ere ulertzen
Aldundiak Tximistarrin slackline egi-
teko emandako baimena, zonaldea
mehatxaturik dauden ubarroi mottodunen
ugal-kolonia dagoela eta
belatz handia edo erroia bezalako
espezieak ere inguruan habia egi-
ten dutela jakinda.*

*Oraingo honetan behintzat, jar-
duera bultzatu dutenek baimena
eskatu dute, eta ez da gutxi. Hala
egin beharko litzateke beti, baina
zoritxarrez ez da ohikoa. Ez dugu
ezer esaterik jardueraren ingur-
uan, norberak bere iritzia izan
arren, baina sustatzaileek eraku-
tsitako jarrera ona, baimenak
eskatuz, azpimarratu nahi genuke.
Gipuzkoako Foru Aldundiko Basa
Animaliak eta Landareak kontser-
batzeko Zerbitzua okerra egin du.
Ez du asmatu baimen hori emate-
rakoan. Gure ustez ingurua ez da
jarduera hori egiteko tokia, baina
onartezina dena da aipaturiko
hegaztien ugal garaian bertan egi-
tea (marra gorria). Zergatik ez
bilatu beste toki bat edo, behin-
tzat, ugal garaitik kanpo baimen-
tzea, abuztutik abendura esatera-*

*ko. Ulertezina zaigu. Hortaz,
Gipuzkoako Foru Aldundiari atzera
egiteko eskaera luzatu nahi diogu,
jarduera orain debekatzeko eska-
tuz, Hala ez bada, sustatzaileei
Aldundiak hartu ez duen gautelaz-
ko printzipioa aintzat hartzea eta
haiek beraiek data hauetan bertan
behera uztea jarduera.*

*Haritzalde Naturzaleen Elkarteak
Igeldo-Mendizorrotz Europako
Natura 2000 sarean sartzeko propo-
samena duela dozena bat urte egin
zuen eta, azken urte hauetan, Santa
Klara Uhartea Teniseko itsasaldien
arteko zabalgunea, Igara-Mendi-
zorrotz zein gertuko inguruko itsas
eremua Garrantzi Komunitarioko
Lekua lehenbizi eta gero Kon-
tserbazio Bereziko Eremua izenda-
tzea eskatu dugu, eta, besteak
beste, Donostiako Udalarekin lan-
tzen ari gara. Igeldo-Tximistarrin
inguruak balio ekologiko altua du
bereziko garrantzia duelako hegaz-
tien ugalketarako. Han mehatxaturik
dagoen eta duela gutxira arte des-
agertuta zegoen ubarroi mottodu-
nen Gipuzkoako ugal koloniarik han-
diena dago. Zonaldea babestu behar
da eta ugal garaian baimenak ema-
teak ez dirudi bide egokiena.*

**Haritzalde naturzaleen elkarteak
2021eko martxoaren 30a**

Gudamendi eta Etumeko bizilagunen eskaerak jaso ditu Herri Kontseiluak

Gudamendi bidean argiteria jartzea eta Etumeko egoerari konponbidea ematea dira bertako bizilagunen eskaera nagusiak.

Apirilean zehar, Herri Kontseiluak bilera bana egin zuen Gudamendiko eta Etumeko bizilagunekin eta beraien auzunearen egoera hobetzeko hainbat eskaera egin dituzte. Herri Kontseiluak eskaera horiek plazaratuz, idatzi bat aurkeztu du Donostiako Udal Erregistroan Udalak kontuan har ditzan.

Gudamendin martxan jartzera doazen Adikzioak Tratatze Zentruaren inguruan informazioa eman eta gaiaren inguruan hitz egiteko beharra ikusten zuen Herri Kontseiluak eta hortik abiatuta, bertako bizilagunen kezka, kexa, beharrak eta proposamenak biltzeko aprobetxatu zuen.

Argiteria Gudamendi bidean

Bileretara gerturatutako bizilagun guztiak bat etorri ziren Gudamendi bidean argiteria jartzeko beharra azaltzerakoan. Eskaera hau aspaldikoa dela gaineratu zuten, orain dela 10 urte pasatxo, Odon Elorza alkate zela lortzear egon zirena. Gaiari berriz heltzeko eskatzen diote egungo Udalari. Gainera, orain, Adikzioak Tratatze Zentrua martxan jarriko dela eta, segurtasun aldetik inoiz

baino beharrezkoagoa dela azpimarratu dute. Kezkatuta daude.

Etumeko egoera konpontzea

Etumeko bizilagunak oso kezkatuta daude bizi duten egoerarekin. Linbo juridiko batean bizi direla azaldu diote Herri Kontseiluari, sekulako arazoak dituztela eta ez dutela inolako babesik. Bi etxebizitza blokeak nekazal lurretan eraiki ziren orain dela 60 urte inguru eta lur horien jabeak elkarte desberdinak dira. Diotenez, gaur egun "elkarte fantasmak" eta kiebra jo dutenak. Beraien etxebizitzetara doan bidea ere jabe horien esku dago eta abenduan izan zen lur-jausi baten ondorioz, bidea kolokan dago oraindik. Zuhaitzak ere erori ziren martxoan eta mendi-magalak oso ezegonkor daude. Horri guztiari konponbidea emateko, ezin dute ezer egin, ezin dutelako jabeekin harremanetan jarri ere egin. Horrez gain, etxebizitzak nekazal eremuan daudenez, horiek erre edo eroriko balira, ezingo litzekete berriro eraiki. Egoera ezegonkor honekin bukatzeko, Udalari laguntza eskatzen diote. «Adikzioak Tratatze Zentrua interes publikokoa dela esan

da, eta Etume ez?» adierazi dute.

Bi eskaera nagusi horiez gain, Gudamendi bidea konpontzea eta auzunea garbitzea eskatzen dute.

Adikzioak Tratatze Zentruari jarraipena

Bizilagunak kezkatuta daude laster martxan jarriko den Adikzioak Tratatze Zentroarekin. Hainbat eskaera egin dizkiete Virtuss-Adicciones enpresako kideei eta Udalari ere eskatzen diote nolabaitzeko kontrola izatea auzoko elkarbizitza egokia izan dadin:

- Pazienteen irteerak zaintzapean izatea.
- Eraikin kanpoan kotxe pilaketak egon daitezkeela ikusten dute eta segurtasun aldetik arazoak sortu daitezkeela. Lursail barruan aparkalekua jar dezatela eskatzen dute.
- Udalak interes publikoko jarduerara zela onartu zuen eta adostasuna azaldu du horrelako zentru bat martxan jartzea nekazal lurzorua izanda ere. Prezedentea sortzen duela ikusten da eta kezka sortzen du etorkizunean zer eragin izan dezakeen honek.

Adikzioak Tratatze Zentruaz hainbat kontu

Gudamendi bidea 10 helbidean dagoen etxean, Adikzioak Tratatze Zentrua jarriko da martxan laster (Diputazioaren baimearen zain daude). Virtuss Adicciones enpresaren zentrua izango da. Herri Kontseilua harremanetan jarri da Virtusseko kideekin eta proiektuaren inguruko informazioa jaso du beraien eskutik.

Virtuss orain dela 10 urte sortu zuten Santamaría anaiek Donostian eta gaur egun Groseko pisu batean daukate egoitza, Ramon Maria Lili pasealekuan. Mota guztietako adikzioak dituzten pazienteak daukate; droga adikzioa daukatenak (alkohola, kokaina, kannabisa...) edota jokuarekin eta teknologia berriekin menpekotasuna dutenak. Baita bestelako konportamentu arazoak dituzten pazienteak ere.

Eguneko zentru bezala funtzionatzen du Groseko egoitzak eta pauso bat aurrerago joan nahi izan dute Igeldon. Igeldokoa erresidentzia zentrua izango da eta 22 lagunentzako plaza izango du. Beharrezko ikusten dute adikzio arazoak dituztenak beraien egunerokotasunetik ateratzea, estimuloetatik aislatuta egotea beraien terapiak behar bezala jarraitu ahal izateko. Dena zentruaren barruan eramango dute aurrera eta pazienteak ez dira beraien kabuz zentrotik kanpo ibiliko.

Beraien jarduna Proyecto Hombre bezalako elkarteekin konparatuta desberdina dela azaldu dute. Klinikoagoa litzateke dena eta medikuen zaintzapean egongo liriteke pazienteak momentu oro. Pazienteen perfila ere diferentea dela diote, ez dituzte hain perfil konplikatua izaten.



Denera 44 lagun elkartu ziren Herri Batzarrean.

Negoziaketa faseari begira, herritarren laguntza eskatu du Herri Kontseiluak

Herri mailan gaia lantzeko Batzorde bat dago, irekia, eta indartu beharra ikusten dute: «arlo ezberdinetan egin beharko da lan».

Herri Kontseiluak Herri Batzarra antolatu zuen maiatzaren 9an Igeldoko Tokiko Entitate Txikiaren (TET) inguruan hitz egiteko. Azken hilabeteetan, etxe guztietara informazioa banatu dute orain arte emandako pausuen berri emanaz eta hemendik aurrera eman beharrekoak azalduz. Batzarrean ere zentzu berean hitz egin zuten.

Ekainean negoziaketa fasean sartuko dela prozesua azaldu zuten eta herritarrei laguntza eskatu zieten fase honetarako: «Herritarrak inplikatzeko eta prozesuan parte hartzea behar beharrezkoa da. Denon artean erabaki behar dugu nolako Entitate Txikia nahi dugun. Orain adostuko dira eskumenak, ondarea eta aurrekontua». Gai hau herri mailan lantzeko, Batzorde bat dago, irekia, eta indartu beharra ikusten dute fase honetarako: «Lan asko dago egiteko. Arlo ezberdinetan egin beharko da lan eta jendea

behar da: arlo ekonomikoan, juridikoa, hirigintzan, komunikazioan, herri dinamikan... Lantalde desberdinak sortuko dira. Eta horretaz aparte, beste hainbat modu ere egongo dira laguntzeko. Norbait prest badago, etor dadila gugana», egin zuten dei.

Negoziaketa Mahaiko kideak

Negoziaketa Mahaia osatuko da orain, parekidea, Udaleko alderdi politiko guztietako ordezkari banarekin (5 kide), Igeldoko ordezkariarekin (5 kide) eta presidenteararekin (Alkatea). Igeldoko ordezkariak ez dira zehaztu oraindik (5 titular eta 5 ordezkari izendatu behar dira), baina Batzordeko kideak izatea onartu zuten Herri Batzarrek.

Orain arte egindakoa

Batzarrean, orain arte egindakoaren berri eman zuten. Negoziaketarekin hasi aurretik, joko arauak zehaztu dituztela azaldu zuten. Hau da,

negoziaketan landuko diren edukiak zehaztu dituzte, Negoziaketa Mahaia nola osatuko den eta ze funtzionamendu izango duen ere bai, eta ze plangintza jarraituko duen. Prozedura biltzen duen txosten bat prestatu dute eta Donostiako Plenoak horixe onartzea falta da prozesua martxan jartzeko. Maiatzaren 27an izango da.

Aldundiak TET izendatzeko, justifikazio txostena

Negoziaketa fasean justifikazio txosten bat prestatu behar da ondoren Foru Aldundiak ebatzi dezan Igeldoko TET eratzea edo ez. Justifikazio txosten hori osatzeko, arlo ezberdinak landu beharko dira: Arlo juridikoa, Hirigintza arloa, Arlo soziologikoa eta ekonomiko-finantzieroa, Komunikazio eta partaidetza arloa. Hor zehaztuko lirateke Igeldoko TETak izango lituzkeen eskumen, ondare eta aurrekontua, besteak beste.

Urte eta erdiko prozesua

Zehaztutako plangintzaren arabera, prozesua ekainean hasi eta 2022ko abenduan bukatzea aurreikusten da. Urte eta erdiko prozesua. Nahiz eta egutegi hori adostu, balitekeela ez betetzea azaldu zuten, baina ez dela arazo: «Igeldotik ez dugu presarik, gauzak ahalik eta ondoen egitea da gure helburua».

Herritarren partehartzea prozesu osoan

Negoziaketa Mahaiak 8 batzar egitea aurreikusten da eta batzar horietan hartuko dira erabakiak. Dena dela, erabaki horiek aurretik herritarrekin landuak izango dira. Prozesu osoan etengabeko hartumana izango dela nabarmendu zuten. Horrez gain, negoziatutako Tokiko Entitate Txikiaren gainean igeldotarrek erabakiko dute ados dauden edo ez. Foru Aldundiaren

erabakiaren aurretik galdeketa egingo da.

“ Egungo egoera hobetzeko tresna baliagarria izan daiteke: geure beharrei erantzun hobe emateko, zerbitzuak gerturatzeko, kudeaketa eraginkorragoa izateko, arazoei neurriko irtenbideak emateko... ”

Zertarako Igeldoko TET?

Tokiko Entitate Txiki bat izatearen onurak ere aipatu zituzten batzarrean. Donostiako Udalaren parte den entitate bat litzateke, baina izaera

juridiko propioa duena. Aurrez adostutako eskumen, ondare eta aurrekontua gestionatzeko aukera izango luke eta aparteko diru laguntzak eskatzeko aukera: Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Estatua, Europa... «Egungo egoera hobetzeko tresna baliagarria izan daiteke: geure beharrei erantzun hobe emateko, zerbitzuak gerturatzeko, burokrazia arintzeko, kudeaketa azkarragoa eta eraginkorragoa izateko, arazoei neurriko irtenbideak emateko...», gaineratu zuten.

Txostena eskuragarri

Prozedura guztia biltzen duen txostena eskuragarri dago euskeraz eta gazteleraz. Nahi duenak eskatu dezake. Zalantzak argitzeko, ekarpenak egiteko edo batzordean sartzeko ere harremanetan jarri besterik ez dago: herrikontseilua@igeldo.eus // 606311734.

Sortu da Igeldoko Kultur Mahaia

Urte osoan zehar kultur jarduera desberdinak antolatzeko helburuarekin sortu da talde hau eta San Isidro egunaren bueltan izan dira lehenengo kultur ekintzak.

Herri Kontseiluaren hausnarketa batetik abiatuta, Igeldoko Kultur Mahaia sortu dute hainbat herritarrek. Urtean zehar ekintza zehatzak antolatu izan diren arren (udaberri eta udazken jaiak, herriko festak, euskararen eguna...), iraunkorki kultur ekintzak antolatzeko beharra dagoela ikusi dute. Hau da, ekintzak hain puntualak eta festa jakinei lotuak izan beharrean, urte osoan zehar kultur eskaintza zabaltea da helburua. Horretarako, kultur ekimenak antolatzen dituzten herriko talde zehatzekin ere lotura izango dute, ekimen guztiak behar

bezala koordinatzeko.

Lehenengo ekintzak, San Isidroren bueltan

Aurten ere Udaberri Festarik ezin izan da ospatu, pandemiak eragindako egoera dela eta. Baina San Isidro eguna aitzakia hartuta, lehenengo kultur ekintzak antolatzea erabaki zuten Kultur Mahaiak, udaberria girtzeko asmoz. Hori horrela, pasa den asteburuan (maiatzak 15 eta 16) hainbat ekintza izan dira herrian: patin roller saioa, argazki erakusketa, dokumental emanaldia eta euskal dantza ikuskizuna, hain zuzen.

Aurrera begira, zenbait proposamen

Beste hainbat ekintza ere badauzkate buruan aurrera begira antolatzeke: zinea plazan, astronomia saioa, ikuskizun eta antzezlanak...

Talde irekia

Herrian kultur jarduerak antolatzeke gogoz dauden 9 herritar elkartu dira talde honetan, baina adierazi dute taldea irekia dela eta interesa daukan edonor gerturatu daitekeela. Horretarako, Herri Kontseiluarekin harremanetan jarri besterik ez dago: herrikontseilua@igeldo.eus.

Herria piztu eta udaberria girotzeko asmoz, hainbat kultur ekintza antolatu zituen Kultur Mahaia maiatzaren 15 eta 16an. Harrera ona izan zuten eta hasierako helburua bete dute.

Hasiera, udaberria girotzea



Argazki erakusketako eta ekintza guztietako argazkiak ikusgai daude weborrian: igeldo.eus.

DON JOSE MEDIKUA (1902-1960)

Benito Jose Ramon Galparsoro Begiristain zuen izena eta Ataunen jaio zen 5 anai-arrebako familia batean. Hasiera batean burdin-lanetan aritu zen baina herriko maisuak eta farmazeutikoak mutil argia zela ikusi zuten eta medikuntza ikasketak egiten lagundu zioten. Dolores Ormazabal izan zuen emaztea (Lazkaokoa) eta 5 seme-alaba izan zituzten (2 alaba erizainak izan ziren). Artean 3 seme alaba zituztelarik, familia hartu eta Valladolideko herri txiki batera joan zen titulua ateratzera. Valladolideko Hospital De Sangren aritu zen praktikak egiten eta titulua ateratzeko beharrezko jakintza lortzen. Gerra Zibila hasi zenean Euskal Herrira itzuli eta titulua lortu zuen. Euska Herrian zela, Goierri aldera destinatu zuten mediku moduan eta denbora batez inguru horretan bizi izan ziren.

1942 urtean etorri ziren Igeldora, Etume baserriaren aldamenen zegoen Torreioian jarri ziren bizitzen eta zenbait urtetan zehar bera izan zen Igeldoko medikua, oso estimatua gainera. Inguruko baserritakoak astoan joaten omen ziren bere bila, medikua baserrira hurbiltzeko. Beste batzuetan bizikleta zahar batean ibiltzen omen zen adar batekin frenatuz edo eta motozikletan ere ibiltzen zela oroitzen denik bada.

Denetariko lanak egiten zituen: mediku arruntaren lanak, matrona lanak, autopsiak...

Erditzeak artatzea tokatzen zitzaionean, askotan luze joaten zirela eta, Marabietako Julianekin elkartu eta tertulian pasatzen omen zituzten orduak. Pakonen ere askotan elkartzen omen zen koadrilan; Pako zaharrakin, Bengoetxeko Martinekin, Marabietako Julianekin... Bengoetxeko Joxe Antonio izan zen Don Joseren laguntzaz jaio zen haurretako bat, gogoan du Kandido anaiak eskolatik etxera bidean, Iriarten nola eman zioten notizia Don Jose handik pasatu berria zela eta.

Ordainketak berriz, baserriko produktuekin egiten zizkieten eta etxea gainezka izaten omen zuten oilasko, oilo, sagar eta abarrekin. Igeldotarrak oso eskuabalak zirela aipatzen omen zuen, hala oroitzen dute bere gertukoek.

4 urte inguru bizi izan zen Etumen eta gero Antiguara jaitsi ziren. Matia kalean zuen etxean jarraitu zuen kontsulta pasatzen. Garai hartan telefonorik ez zegoenez, inguruko tabernetan uzten omen zioten herritarrek abisua, Igeldon edo eta Antiguon.

“El pequeño marañon” omen zuen goitizena, “begi kliniko” ona zuelako eta diagnostikoak egiten oso ona zelako. Garai hartan diagnostiko gehienak ikusmenaren



Benito Jose Ramon Galparsoro Begiristain “Don Jose medikua”.

eta entzumenaren bidez egiten zituzten eta berak horretarako zentzumen onak zituela esaten zuten.

Urdailean kilimak zituen gaztearen kasua

Bitxikeriazko kasu bat ere izan omen zuen, 1947ko abenduan egunkari batean argitaratu zen berrian irakur daitekeenez. Igeldoko Zapatari baserriko Jose Artola gaztea izan zen gaixoa (15 urterekin). Urdailean mina sentitzen omen zuen mutilak eta 15 egun jateko gogorik gabe zela ikusirik Don Jose medikuaren kontsultara joan ziren ama-semeak urte horretako ekainean. Handik egun batzuetara berriro azaldu omen ziren medikuaren kontsultara, orduan urdailean kilimak nabaritzen omen zituen eta gorputzez oso zurbil omen zegoen. Hirugarren bisitan amak adierazi zion medikuari semea ohean zela eta ipurditik har oso arraro bat kanporatu zuela. Honela azaldu zion amak ikusitakoa: «Oso arraroa da. Hankak ditu eta mugitu egiten da, eta arratoi baten antzeko isatsa du». Medikua eman-dako sendagaiari esker gazteak tripa barruan zituen larba guztiak bota zituen osasuna berreskuratuz,

UN MEDICO DONOSTIARRA DESCUBRE UN «ESTOMAGO-COLMENA»

**A José Artola le hacían cosquillas
104 moscas con cola de ratón**

He aquí el más curioso método de hacerle cosquillas a una persona. Sin plumas de ganso, ni papel de fumar; sin que nadie le tocara, José Artola, un muchacho de quince años, domiciliado en el caserío «Zapatari», de Igeldo, sentía extraños cosquilleos en su estómago. Pero estas cosquillas no le hacían reír.

Un buen día del pasado junio, se presentó José Artola a su

padre y López Neyra, profesor de la Facultad de Ciencias de la Universidad de Granada y director del Instituto Nacional de Parasitología. Llegaron vivas.

—¿Qué informe emitió?

—Ratificó que, efectivamente, se trataba de una Miasis gástrica y que el parásito agente era la «Musca Eristalis». Y catalogó los raros casos conocidos hasta la fecha en los más variados




Zapatari baseriko Jose Artola gaztea eta Don Jose medikua.

(104 larba guztira 58 eguneko tratamenduan). “Miasis Gastriko” moduan diagnostikatu zuten kasua. Eta lehen esan bezala, sona handikoa izan zen medikuen artean zein gizartean orokorrean, ez Gipuzkoan ezta Espainia mailan ere, ez baitzen horrelako kasurik ezagutu ordura arte. Ondorenean ere aztertzen jarraitu zuten kasua eta ziurrenik ura edanda barneratuko zituela larba horien arrautzak ondorioztatu zuten.







GURUTZEGRAMA




SUDOKUA

5	3			7				
6			1	9	5			
	9	8					6	
8				6				3
4			8		3			1
7				2				6
	6					2	8	
			4	1	9			5
				8			7	9

LETRA ZOPA

	n b l b j c i d r w i p g ñ s p f m v w a d b s w p t f c b h d f f u a j p t x i g r o q w j y y h o o i a r f p ñ o p m u l r o o t y s b o g h h n k l ñ i t p x e ñ o m n e ñ ç p x h s f i d n p c b t b ñ q f a n n m f h y p e i z r o ñ t c z ñ a p b i n u x f r o i r z q a b k o r c v t u b a n a r k e t q c u g q o n x l ñ p t i j m t g ñ p n ñ z x m z l e u r j q h i m t e z l m p r b t s l t f e j q r p q j g u c n a t x f h b q w k m f c d i w o q k a k o r e f g q f k m z y h n l s c f n i c i l z
	
	
	

7 DESBERDINTASUNAK



Azken ebaluazioaren hasiera

Oporretatik bueltan, ekintza berezi ugari egin dituzte Eskolan.

Aste santuko oporrak pasa eta eskolara itzuli ziren ikasle eta irakasleak 2020-2021 ikasturtearen azken txanpari eusteko eta azken ebaluazioaren inguruko azalpenak eman dizkiote Orri Informatiboari. «Ebaluazio hau gogotsu hasi dugu, eta ekintza berezi ugari izan ditugu eskolan tarte honetan», azaldu dute.

Batetik, 3. zikloko ikasleek formazio bat jaso zuten Sexu Aniztasunaren inguruan. Ostegun goiz oso bat eman zuten gaia lantzen, eta arratsalde horretan bertan gurasoei eskaini zitzaizen ikastaro trinko bat. Eskolako irakasleek ere jaso zuten formazioa gaiari buruz.

Bestetik, apirilaren 23an, 2. zikloko ikasleek Eskola Txikietako topaketa telematiko batean parte hartu zuten. Bertan, 2. ebaluazioko proiektua aurkeztu zuten, Izaki Bizidunekin lotutakoa, eta tartean Kahoot! pare bat sartu zituzten bileran parte hartzen ari ziren kideek erantzuteko. Laukizko ikasle talde batek Australiari buruzko aurkezpena egin zuen, eta lan handia egin zutela erakutsi ziguten. Esperientzia oso polita izan zen, beste eskoletako ikasleak ikusteko aukera izan baitzuten, eta gainera giro polita sortu zen denen artean.

Kontzertu pedagogikoa

Apirilaren 30ean, Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolatik etorri zitzaizkien kontzertu pedagogikoak eskaintzera. Bi txandatan banatu ziren honetarako: batetik 4 eta 5 urtekoak eta 1. ziklokoak, eta bestetik 2. eta 3. ziklokoak, eta "Musika txantxak: Musikagile klasikoenen txiste musikalen bilduma" ikuskizuna eskaini zieten. «Oso dibertigarria izan zen denentzat, eta Musika Eskolari eskertu nahi diogu zuzeneko musikaz gozatzeko aukera eskaini izana,


eskolarraino etorri baitziren ikasleei musika helarazteko», adierazi dute.

Honekin lotuta, Aste Santuko oporren aurretik Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren emanaldira 3. ziklokoek Kursoalera egin zuten irteera aipatu dute. Beethovenen 9 sinfonietako zatitxoak entzuteko

aukera izan zuten bertan, eta orkestra zuzenean ikusi ahal izan zuten. Musika ederraz gozatu zuten ordubeteko saioan.

Ikusten denez indartsu hasi dute ebaluazioa, eta giro onean amaitzea espero dutela adierazi dute: «Ziur hala izango dela. Eutsi goiari!».





Inflazioa goraka ikusten dugu: puntuala izango da ala gelditzeko etorriko da?

Olimpia Arrese-Igor ekonomialaria
2021/05/02

Aldez aurretik mundua ez dela berdina izango esango nuke. 2020ko martxotik Covidak bizitza aldatu digu eta bizitza ez da berdina izango ez hemen eta ez inon. Batzuk hobeto bizi izan dute, bizi dute eta biziko dute egoera hau beste batzuk baino, hauek gaixotasunak jota, langabeziak jota edo beste arazo batzuk jota daudelako, baina lehengo egoerara ez gara berriz bueltatuko. Mundu mailan zenbait herrialdek, batez ere ekonomikoki eta politikoki indartsuenek, modu batean edo bestean kontrol neurriak ezarriko dituzte eta lehen bezala alde batetik bestera pertsonak eta ondasunak askatasunez mugitzea bukatu dela uste dut. Herrialde ezberdinak koordinatzeko zailtasun handiagoak izango dira. Mundua isolatze prozeduran sartzeko arriskuan dago.

Ekonomiari Covidak nola eragin dion aztertzeke 3 momentu ezberdin bereiztuko nituzke:

1. Hasierakoa, mundua gelditzen denean eta denok etxean konfinatuta gelditzen garenean. Momentu horretan etorkizuna ez da ikusten, ziurgabetasuna eta beldurra dira nagusi: inbertsio erabakietan, gastu erabakietan... momentu hartako geldialdiak munduko ekonomian inoiz ikusi ez den beherakada eragiten du.

Finantza merkatuek egun gutxiren buruan aurrekaririk gabeko beherakada izaten dute.

Une horretan, ekonomialari askok, pandemia hilabete batzuetara menderatuta izan zitekeelakoan, ekonomiaren errekonferentzia "V" moduan izango zela pentsatzen zuten.

2. Covida menderatzeko denbora dexente behar dugula ikusitakoan, ekonomian sortutako eraginak murrizteko asmoarekin, kalera ateratzeko baimenak marxan jartzen dira. Bizimodu berri batean oinarrituta, maskara eta beste segurtasun neurriak hartuz, ekonomia pixkanaka hazten dijoa, baina sektore batzuk ezin dute burua altxa: Turismoak, Ostalaritzak, komertzio mota batzuk, hegaldiekin zerikusia duten enpresek... beste batzuen artean. Beste sektore batzuk berriz, sekulako gorakadarekin jarraitzen dute, batez ere, teknologiarekin zerikusia dutenek, interneteko komertzioarekin hain zuzen ere. Horiek pandemiaren hasieratik gorakada nabarmena izan dute, egoera horretan erosketak interneten egitea irtenbide bat baita. Etxetik ere gero eta jende gehiagok egiten du lan, eta horrek ere zenbait sektoreentzat gorakada potoloa suposatzen du.

Une honetan ekonomialariek krisiaren irteera “K” moduan ikusten dugu. Esan bezala, zenbait sektorek gorakada nabarmena izango dute eta beste batzuk berriz, mugikortasunarekin zerikusia dutenek batez ere (Turismoa eta Ostalaritza adibidez) beherakada edo betiko amaiera izango dute.

Bestalde, Txinak lehengaiekin eta zenbait produktuekin hornitzen dituen herrialdeetan arazoak hasten dira. Txinak gutxiago hornitzen du, biltegiak hustu egiten dira eta izakinak bukatzen dira. Beraz, lehengaiak eta ekoizteko behar diren zenbait produktu falta dira eta horrek, alde batetik, hauen prezioak igotzen ditu eta bestetik, enpresa askok produkzioa gelditu behar dute.

3. Txertoaren garaia. Txertoen garapenak ekonomia-aren hazkundearen erritmoa markatzen du. Herrialde ezberdinetan ez da berdin garatzen jendearen txertaketa eta horrek ere bere eragina du herrialde ezberdinetako ekonomietan. Aberatsenak alde batetik, pobreenak bestetik. Horrela gauzak, munduan zehar kutsatze arrisku handia dago eta ondorioz, mugikortasuna mugatuagoa eta kontrolatuagoa izango da, bai pertsonentzat bai ondasunentzat. Beraz, krisialditik ateratzeko abiadura ezberdinak ere izango dira.

Zenbait produktuk prezioaren igoera izango dute eta dagoeneko izaten ari dira. Covida “kontrolatu” ondoren etorriko den hazkundera indartsua izango da. Alde batetik, ekonomia “irekiko” da, lana gehiago izango da eta bestetik, jendeak dirua aurreztu du egoera honetan, ez du horrenbeste gastatu eta egoera hau “kontrolpean” dagoenean, aurreztutako zati handi bat gastatuko du. Ekonomialariak orain inflazioari begira gaude. Inflazioa goraka ikusten dugu, baina galdera da:

puntuala izango da eta gero berriz neurri “normal” batera itzuliko da ala gelditzeko etorriko da? Prezioak igoko dira, bai, baina asko? Noiz arte? Orduan, interes tasak igoko dira ere? Gaur egun dirua tasa negatiboan dago eta ondorioz maileguak oso merke daude. Buelta ematen badu, dena garestituko da.

Ekonomia suspertzeko banku zentralak diru mardoa sisteman sartzen jarraitzen dute. 2008 urteko finantza krisiari aurre egiteko hasi ziren dirua sartzen interes tasa jaisteko eta orain berdin jarraitzen dute egin beharreko guztia egingo dutela esanez. Helburua interes tasak baxu mantentzea da hazkundera ekonomia suspertuz, enpresari inbertsioak egin ditzaten eta kontsumitzaileek gehiago kontsumitu dezaten. Hori oso ondo dago momentuz, laguntza ona da, baina bere alde txarrak baditu: alde batetik, abantaila hauek eragile ekonomiko guztiei ez zaizkie neurri berdinean iristen. Askotan behar ez dutenek etekin gehiago ateratzen diete halako neurriari. Bestetik, herrialdeen eta pertsonen zorrak gorantz dijoaz eta burbuila baten aurrean egon gaitezke, horrek suposatzen duen arriskuarekin.

Aipatzekoa da ere, gobernuek laguntza programa ezberdinak ezarri dituztela zenbait sektorei laguntzeko, baina dirua ez da iristen behar den moduan eta enpresa asko galdu dira betirako, langabezia handia sortuz.

Ondorio positiboren bat badagoela ere esan dezaket. Covidak sortutako egoeraren ondorioz, ingurumenaren eta ekonomia jasangarriaren inguruan sensibilitatea handituz doa. Gaur egun enpresa gehiago dira sozialki arduratsuagoak eta jasangarriagoak diren inbertsioak egiten dituztenak eta Europak ere arlo honetan apostua indartu du.





Mendizorrotzera ere iritsi zen euskal presoen auzia konpontzeko aldarria

Sare herritarrak aurrera jarraitzen du Izan Bidea dinamikarekin, eta ehunka herritarrek Euskal Herriko 650 tontor igo zituzten Maiatzaren 8an, euskal presoen eskubideen alde. Igeldon Mendizorrotz igo zuten hogei bat igeldotarrak presoen auzirako konponbide bat nahi dutela aldarrikatzeko.

Merkatu txikia

*Bidali zuen eskaerak edo eskaintzak.
Gehienez 12 hitz.

LANPOSTUAK

41 urteko mutil lasaia, lan bila:
txakurrak atera, zaintzan aritu,
garbiketan, belardietan...
617605389.

OHARRA

Iritzi-artikuluak argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak uztailean eta urrian izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com

